

Krisia jasaten ari direnentzako gida



Ekonomia eta lan krisia milaka langile langabezian uzten ari da, baita Euskal Herriko langileak ere, eta guztiek zailtasun handia dute hilabete bukaerara iristeko. Krisi garaietan, indarrean dauden mekanismo sozio-laboralen jakinaren gainean egotea komeni da, egoera arindu ahal izateko.

DANIEL UDALAITZ

AZKEN HILABETEOTAN bonbardaketa luzea jasaten ari gara krisialdi finantzarioaren eta horrek eragindako krisi ekonomikoaren, industrialaren eta laboralaren inguruan. Enpresen ordainketa etendurak –gaur egun “hartzekodunen konkurtso” izenez ezagunagoak–, enplegua erregulatzeke espedienteak edo EEEdak, eusten gero eta zailagoak diren edo exekutatzeko zorian dauden hipotekak eta abar. Horiek dira egunero agertzen diren berriak eta milaka euskal langileri, modu batera edo bestera, eragiten dieten arazoak. Joan den urtarrileko azken datuen arabera, Hego Euskal Herriko 146.468 herritar daude langabezian, biztanleria aktiboaren % 10,66, alegia. Eta 23.000 euskal langileri baino gehiagori eragiten diete EEEdak.

Testuinguru horretan interesgarria iruditu zaigu gida praktikoa bat eskaintzea; batetik, informazio sozioekonomikoa jarraitzeke eta ulertzeke; eta, batez ere, krisiak eragindakoek beren egoera kon-

pontzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait puntu, neurri edo legeren berri izan dezaten. Horixe da gida labur eta praktikoa honen helburua. Alde batetik, Gizarte

Segurantzaren erregimen orokorraren barruan daudenentzako neurriak jorratuko ditugu. Bestaldetik, autonomoen egoeraz arituko gara. ■

Zer egoeratan daude langile autonomoak?

Erregimen orokorrean dauden langileen aurrean, langile autonomoen egoera bestelakoa da. 220.000 inguru dira Hego Euskal Herrian eta orain arte gainerako langileek baino babes txikiagoa izan dute. Berriki, gai hau jorratu dugu ARGIAN (2.174 zenbakian). Ez dute sekula langabezia saria eskuratzeko aukerarik izan. Orain Espainiako gobernua- ren lege berri baten zain daude, 2011tik aurrera, gehienez sei hilabetetan, prestazioa kobratzeko. Horretarako, gutxienez urtebe- tean hileko 26,25 euro kotizatu beharko lituzkete, orain arte ordain- tzen dutenaz gain, gutxienez 583 euroko saria jasotzeko. Beraz, gehienez sei hilabeteko gizarte babesa izango dute, erregimen oroko- rreko langileek bi urteko babesa duten bitartean.

Datorren uda baino lehen bidera daitezkeen lege proiektu horrek dioenez, babesaren iraupena kotizatutako denboraren arabera- koa litzateke. Hala, 12 eta 17 hilabete artean kotizatuz gero, diru laguntza bi hilabetekoa litzateke; 18 eta 23 hilabete artean, hiru hilabetekoa; 24 eta 29 hilabete artean, lau hilabetekoa; 30 eta 35 hilabete bitar- tean, bost hilabetekoa; eta 36 hilabetetik gora kotizatuta, gehienez sei hilabeteko langabezia saria jasoko lukete.

Erregimen orokorreko langileentzako gida

ZER DIRA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EDO EEE-AK?

Krisialdiak eragindako edozein enpresak egoera arintzeko formuletan pentsatzen du eta formula horiek lan legeriak jasotzen ditu. Horretarako, hiru motako espedienteak daude. Krisia estrukturala baldin bada, langile batzuei edo guztiei kontratua desegiteko espedienteetara jo dezakete. Egoeraren arabera krisia bada, aldi baterako enplegua uzteko edo lanaldia laburtzeko espedienteetara jo dezakete. Lan aginpide eskudunetara jotzeko, lehenago, enpresa batzordeekin negoziatu beharko dute. Akordioa lor daiteke, ala ez. Dena den, alde zuzeneko akordioa aurkezten dutenek errazago lortzen dute baimena.

KALERATZEAK EGONEZ GERO, ZENBATEKOA DA KALTE ORDAINA?

Kaleratzea bidegabekoa bada, lan egindako urteko 45 egunekoa da kalte ordaina, eta gehienez 42 hilabeteko soldata jaso daiteke. Kaleratzea arrazoi objektiboengatik (besteak beste, berregituratzeengatik, porrotengatik) bidezkoa izanez gero, kalte ordaina lan egindako urte bakoitzeko 20 egunekoa izango da, eta gehienez urtebeteko soldata jasoko du langileak. Horixe bera da enplegua erregulatzeko espedienteentzako gutxienezko kalte ordaina.

LANGABEZIA SARIA LORTZEKO ZENBAT DENBORAN LAN EGIN BEHAR DA ETA ZENBAT DIRU JASOTZEN DA?

Langileak, gutxienez urte beteko kotizazioa osatu behar du enplegua galdu baino lehenagoko sei urtetan, eta kaleratzearen arrazoiak ez dute langilearekin zerikusirik izan behar. Baldintza orokorren arabera, langileak lan egindako urteko 4 hilabeteko langabezia saria jasoko du. Lehenengo sei hilabetetan kotizazio oinarriaren %70 kobratuko du eta, handik aurrera, prestazioa amaitu arte, %60. Laguntza ez da sekula 482 eurotik beherakoa izango, ezta 1.055 eurotik gorakoa ere, familia zamarik gabeko pertsonen kasuan. Langileak seme-alaba bakarra badu 1.206 euro arteko saria jasoko du, eta 1.356 euro artekoa, bi seme-alaba edo gehiago baditu.

BA AL DA SUBSIDIORIK 45 ETA 52 URTEZ GORAKOENTZAT?

45 urte baino gehiago dituzten langabetuek langabezia saria edo birlaneratzeko errenta aktiboa kobratzeko aukera dute; gehienez 413 euroko laguntza. Errenta hori bera dagokie %33tik gorako minusbalioetasuna dutenei, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei eta 45 urtetik gorako itzulitako etorkinei. Halaber, 52 urte beteak dituzten langabetuek diru laguntzarako eskubidea dute enplegua aurkitu arte edo erretiroa hartu arte, eta lanbide arteko gutxienezko soldataren %75 jasoko dute. Horretarako, langabezian geratu ondoren eta INEMeko zerrendetan dagoen bitartean, langileak adin hori bete eta hilabete du eskaera egiteko.

LANGABEZIA SARI OSOA BATERA KOBRATU AL DAITEKE?

Bai. Negozio bat abian jartzen duten eta justifikatzen duten langabetuek prestazioaren %40 bitartean jaso dezakete behingoan.

ZER AUKERA DAUDE HIPOTEKAREN ORDAINKETA ATZERATZEKO?

Espainiako gobernua neurri berriak hartu ditu orain dela gutxi. Hala, martxoaren lehenetik, langabetuek hipotekaren kuota bi urtez murrizteko aukera izango dute. Halaber, hipotekatuek atzeratutako dirua ez dute zertan 24 hilabeteko luzamendua amaitu eta berehala ordaindu. Beste lasaitasun urte bat izango dute: kuota osoa ordaindu beharko dute berriro, baina errekariguri gabe. Hiru urte pasa eta handik aurrera, hau da, 2012ko martxoaren 1etik aurrera, neurri horri heldu diotenek orduan ordaintzen duten kuotari, luzamenduan zehar aurreztutako zati proportzionala erantsi beharko diote. Eta dirua itzultzeko gehieneko aldia 10 urtekoa izatetik 15 urteko izatera igaro da.

ZER DA HARTZEKODUNEN KONKURTSOA?

Orain arte ordainketa etendura esaten zitzaion. Enpresa bat gainbehera datorrenean eskatzen da. Teorian, enpresaren biziraupena du helburu. Horretarako, enpresaren zorra birnegoziatzen da, eta arauak, gehienez, zorraren %50 murriztea ahalbidetzen du. Konkurtsoa hasten denean, ordainketak eten egingo dira eta zorrak interesak sortzeari utziko diote. Handik aurrera, konpainia epaile batek eta administratzaile konkurtsalek kontrolatuko dute. Praktikan, ordainketa eten-durek enpresaren porrotari atea zabaltzen ohi diote.